



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

## Bertsoeskola.eus webgunea argitaratu dugu

**Helduen zein hauren eskoletarako materiala dauka webguneak; gaiak, doinuak, errimak... bertso-eskolei sartzeko bidea ere eman nahi zaie atariaren bidez.**

Bertso eskolarako baliagarria den material guztia eskura izango dute bertso-eskoletako kideek [bertsoeskola.eus](http://bertsoeskola.eus) atari berrian. Sakabanatuta zeuden askotariko baliabideak biltzen ditu plataformak: erabiliaren erabiliaz ederki zimurtuko diren web orrialdeak izango dira ziurrenik gaitegia, doinutegia eta errimategia.

Bat-batean aritzeko plazan jarri diren 700 gaietatik tira ahal izango dute bertso-eskoletako kideek; gai horri loturik bertsoariak kantatutakoa ere ikusi eta entzun ahal izango da *Gaitegia* atalean. Oin aberatsak aurkitzeko, EHUko Ixa taldeak egokitutako *Errimategia* dugu: nahi dugun hitza jarri eta haren amaierarekin bat datozen hitzen zerrenda erakusten du. Eta, horri laguntzeko, plazan erabiltzen diren 400 doinu daude aukeran *Doinutegitik* BDBra bideratuko gaituen loturan.

Hasiberrientzako fitxa errazagoek ere badute beren txokoa.

Bestalde, zenbait bertso jarri ere eskainiko dira, ikus-entzunekoan zein transkribatuta; eta hainbat zaleren gogoan gelditu diren bertsoaldiak ere berreskuratuta dira atariko *Ganbaran*.

### Bertso-eskolen topaleku

Bertso-eskolentzako bakarrik ez, bertso-eskolek eragindako espazioa ere izan nahi du webguneak. Horregatik, bertso-eskola bakoitzak bere jardunaren berri eman ahal izango du, eta batek bestearena ezagutu.

Ataria gailu mugikor txikietan, sakelekoetan zein tabletetan, baliatzeko eroso da oso. Codesyntaxek garatu du webgunea, iaz egindako [bertsoikasgela.eus](http://bertsoikasgela.eus) atariaren antzera.



**JULIO  
SOTO EZKURDIA**

Galdakao, 2019-IX-15

*Jon Barberenari*


Doinua: Jesus maitea zan

Ze ederra izan den  
gure balantzea  
lehenik oholtza eta  
gero oholtza atzea  
ze ederra bide hau  
elkarbanatzea  
ta orain ze krudela  
zuri kantatzea.

Heriok bota dizu  
lehengoan gezia  
bertso txaloa zenun  
ongi merezia  
izan zara poeta  
oso berezia  
baina ulertzen ze zaila  
azken poesia.

Nahiz eta egin goxo  
nahiz ta egin legun  
bertsoa zitala da  
barkaidazu lagun  
joan zarela ez dela  
pasatu lau egun  
bertso gai zeinen azkar  
bihurtu zaitugun.

Goizean notizia  
iritsi orduko  
izotz geratu nintzen  
zer esango dizut ba:  
"Aio lagun urko  
asko maite zaitugu  
ta ez zaitut ahaztuko"!



Gailu mugikor txikietan, sakelekoan zein tabletetan baliatzeko eroso da ataria. / XDZ

# 28.500 ikasle eta 50 irakasle ariko dira bertsolaritza lantzen

**463 ikastetxetan eskainiko ditugu bertso eskolak. Azken urteotan, materialgintzan zein formazioan lanketa handia egiten ari gara.**

Handitzen goaz. Abiatu berri den ikasturte honetan ere, hezkuntza arautuan bertsolaritza lantzen duten ikasle zein irakasle kopuruak gora egin du. Guztira, 28.500 ikasle eta 50 irakasle ariko dira Euskal Herriko 213 herritako 463 ikastetxetan: ikastetxe publikoek, kristau eskolek zein ikastolek hartzen dute parte ekimenean.

Azken urteotan ahalegin berezia ari gara egiten materialgintzan eta irakasleen formazioan. Materialgintzari dagokionez, [bertsoikasgela.eus](http://bertsoikasgela.eus) ataria baliatzen ari dira iaztik ikastetxeetan, eta daukaguna elikatzen jarraitzeko materiala sortzeko lanekin jarraituko dugu.

Formazioari dagokionez, irakasle bakoitzak bere gelako praktika kontzientea egiteko, formazio gogoetsua metodologian oinarritutako saioak egingo dira irakasle mintegietan. Gainera, ikastetxeetan bertsolaritza lantzeko metodologia berritzeko ikerketa lana gauzatuko dugu.

Ikasturte amaiera ospatzeko jaialdi, kantaldi eta topaketarik ez da faltako aurten ere.

## Bertso-eskolen datu basea eguneratzen

Hezkuntza arautuan egiten dugun lanaz harago, bertso-eskoletara begira ere bagaude. [bertsoeskola.eus](http://bertsoeskola.eus) ataria sortzeaz gain, bertso-eskola guztietako datuak jaso eta datu basea eguneratzeko lana egingo dugu. Horrez gain,

herrialdeetan bertso-eskolen batzordeak sortzen eta indartzen ariko gara.

Bertso-eskola berezituak ere izango dira: Ahalduntze Bertso-eskola, Gizon Bertsolarien Bertso Eskola feminista zein Bizkaiko Sakontze Bertso Eskola.

Gainera, Nevadako Unibertsitateak antolatuko dituen jardunaldietan, bertso-eskolak izango dira aztergai. Euskal Herriko bertso-eskolen esperientziaren berri mundura emateko, hitzaldiez gain, liburua ere argitaratuko du Nevadako Unibertsitateak, ingelesez.

## Aisialdirako ekintza mordo

Bertso-eskoletan egiten den lana indartzeko eta zubiak eraikitzeko, ikasturtea ekintza bereziz gainezka izango dugu, ohi bezala: barnetegiak, Bertso Eskolen Egunak, Bertsulari Tiki Eguna, Eskolartekoa, Eskolatik Plazara, bertsolari gazteekin antolatutako saioak, Bertsoa Bizi Gazte bideoklip lehiaketa, Bertso Udalekuak... ez dira faltako.

Bertsolaritzaz gain, beste kultur adierazpide batzuk ezagutzeko aukera emango digute hiru ekimen hauek: Gabonetako Ahotz Baten sormen egonaldiak, unibertsitateko ikasleei zuzendutako Ahostegunak ekimenak zein Gasteizko Gazte Sortegiak egitasmoak.



Hezkuntza arautuko ikasleak bertsolaritzako irakaslearekin. . XDZ

# Bizkaiko gazteentzako Sakontze Bertso Eskola jarri dugu martxan

**Gai desberdinen lanketa egingo dute gazteek ikastaro berezi honetan; izen-ematea zabalik dago.**

Urria eta maiatza bitartean, hilean behin, bertsogintzari lotutako hainbat alor lantzeko aukera izango dute gazteek Onintza Enbeitak gidatutako ordu biko saioetan. Guztira zortzi saio izango dira, eta Enbeitarekin batera, beste hainbat adituk ere hartuko dute parte.

Gai desberdinen lanketa egingo dute: *Zerk ematen digu beldurra plazara goazenean?; Ahotsaren mugak; Zelan hurbildu esan gura dugun horretara; Librean egiteko*

*zailtasunak; Umorea eta gaiak* izango dituzte izenburu saioek. Ikastaroa 1996tik 2002ra jaiotakoentzako izango da. Bilbon egingo da hileko hirugarren asteko ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara.

Izen-ematea zabalik dago urriaren 16ra arte, eta [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian egin ahalko da. 50 euroko kostua izango du izena emateak, baina saio denetan parte hartzen dutenei dirua bueltatuko zaie ikasturte amaieran.

# Ahostegunak, ahozko kultur sorkuntza unibertsitatean

**Urriaren 31n hasi eta azaroaren 28ra arte, ostegunero elkartuko dira ahozko kultur sorkuntzan zaletutako gazteak; sarrera doakoa da, baina izena eman behar da aurretik.**

Ostegunak bereziak izango dira azaroan unibertsitate inguruan dabiltzan gazteentzat. Ahozko kultur sorkuntzarekin ondo pasatzeko saioak antolatu ditugu Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak, Euskaltzaindiaren eta EHUkulturaren laguntzarekin batera; Ahostegunak. Antzerkia, bertsojaritza, kantagintza eta literatura izango dituzte mami ekimena osatzen duten saioek. Egun bakoitzeko, kultur sorkuntza bat landuko da, eta diziplina horretan aritu eta aditu den lagun batek edo batzuek hartuko dute parte. Azken egunean, aurretik egondako gonbidatu guztiekin mahai-ingurua egingo dugu.

Izenak ongi dioen moduan, saioak osteguneguz izango dira, 16:00etatik 19:00etara. UPV/EHUko Gipuzkoako campusaren ondoan dagoen Euskaltzaindiaren egoitzan gauzatuko ditugu, Donostian. Urriaren 31n egingo da lehena eta, jarraian, ostegunero egingo dira saioak azaroaren 28an azkenengoa egiten den arte. Uxue Alberdi izango da literatura landuko

den egunean; bigarrenean, antzerkiaren ingurukoak aletuko dizkigu Miren Gaztañaga aktoreak; bertsojaritzaz arituko dira Beñat Gaztelumendi eta Maialen Lujanbio; eta laugarren saioan, Ines Osinaga musikari eta kantariarekin solasean aritzeko aukera izango dugu. Azaroaren 28an egingo den azken jardunaldian, lau diziplinak aintzat hartuko dituen mahai-ingurua egingo da, eta han elkartuko dira aurrez egun bakoitzean egon diren gonbidatu horiek guztiak.

## Izen-ematea, zabalik

Unibertsitateko ikasleek eskurago izango duten arren, ateak irekita dituzte interesa duten 18 eta 22 urte bitarteko gazte guztiek. Sarrera doakoa da, baina aurrez izena eman beharko da [www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus) atarian egokitutako izen-emate orrian. Urriaren 21era bitarte eman ahal izango da izena.



Ahostegunak ekimena Ahots Baten Sormen egonaldietan oinarritua da. / XDZ

# Azaroan iritsiko da Bertsoaroa, zortzi emanaldirekin

**Azaroaren 5ean hasi eta 26ra bitarte egingo da Bertsoaroa zikloa; Iruñean bertsojaritza sustatu eta kalitatezko ekitaldiak eskaintzea du helburu.**

Egitarau oparoarekin dator aurtengoan ere Bertsoaroa. Azaroaren 5ean hasi eta 26ra bitarte, zortzi emanaldi eskainiko ditu Iruñeko Udalak eta Nafarroako Bertsozale Elkartek elkarlanean antolatzen duen zikloak. Aurtengoan ere, kalitatea eta aniztasuna nabarmentzen dira egitarauan, eta bertsojaritza ardatz duten askotariko emanaldiak dakartza.

Aurreko urteetan bezalaxe, punta-puntako bi bertso jaialdi izango dira, baita bertsoari gazteei eskainitako saio bat

ere. Gainera, dantza eta bertsoa uztartuko dituen emanaldi berezi bat, bertso jarriak kantatuko diren saioa, haurrentzako emanaldi bi eta solasaldi bat izango ditugu Bertsoaroan.

Bertsojaritza Iruñan zabaltzeaz gain, Nafarroako bertsoariari eta bertsoari gazteei bultzada emateko helburua du zikloak. Egitarau osoa [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian ikus daiteke.



## Puntu jarrita

MAITE BERRIOZABAL BERRIZBEITIA

Irurik egindako galderak bete-betea asmatu du hainbatetan gai-jartzaileon jarduna deskribatzeko erabili izan dudak berba batekin: oreka. Existitzen denik ere ziur ez dakigun arren, saioa bilatzen duguna dela esango nuke. Beti ari gara orekatu guran: ariketarako protagonisten rola, saioa ariketak, gaia azaltzeko aukeratutako tonua eta gaiaren kolorea, heldulekuak eskaini eta gaiari mamirik ez kentzea...

Gure esku dagoenari edukia eta forma eman ostean igotzen gara oholtzara. Entzuleari erdi bizkarrez jaka jarlekuaren gainean utzi, poltsa aulkiaren atzealdean ezkutatu eta ur trago bat. Hastera doa. Aurkezten dituzu bertsolariak eta entzuleen txalo zaparrada epela. Agurren tartea. Gaiak gorde dituzun koaderno atera eta irakurketa arin bat lehenengo gaiari. Bertsolarien agur bat. Bigarren gaiari erreparatu eta zuzenketa bat bolaluma urdinez. Beste hiru agur eta gaien txanda da.

Mikrofonoa eta entzulea aurrez, eta bertsolariak alboz. Soinu teknikariaren kalterako mikrofonoari erdi alboz kontatzen diozu gaia. Bertsolariek doinua adosten dute, eta segundo batzuen buruan berriro zaude koaderno altzoan hartuta. Eta saioa amaitu arte ez diozu tentsioari alde egiten uzten, orekatzen laguntzen ei dizu. Azken txalo zaparrada eta saio osteko tragoa. Ondoren, ondo irtendakoen gozamina aldean eta hobetzeko zerrenda buruan, hurrengora arteko arnasaldia.

Zeinen estu eta zeinen gozo hartzen nauten gaiak eta gai-jartzaile lanek. Gorputz beraren barruan daramatzat, presioa eta plazera, exigentzia eta lorpena, beldurra eta ausardia, bakardadea eta taldea, sormena eta ezereza... Oreka bilatzen jarraituko dut, baina uste dut ez dudala aurkitu gura. Beharbada guztiz orekatzea litzatekeelako amaitzea.


Nire desoretan bidelagun dudak bati, Alaitz Rekondori, honakoa nire galdera: Gaiak sortzea zer duzu gurago, taldean ala bakarka?

# Koplak

## Urriaren 24an jokatu da Bertsozale Elkartearen Berripapera

Martxan da Bertsozale Elkartearen Berripapera. Osotara, lau saio izango ditu: hiru kanporaketa eta finala. Urriaren 3an abiatu zen eta urriaren 24an jokatu da finala, 18:30ean, Herriko Tabernan. 15 eta 30 urte bitarteko 18 bertsolari ariko dira kantuan, bikoteka. Finalera hiru kanporaketetako bikote irabazleak iritsiko dira. 2017an abiatu genuen Nafarroako Bertsozale Elkarteak Bertsozale-Eugenio Arraiza Sariketa, Iruñeko Udalaren eta Euskokultur Fundazioaren laguntzarekin.

## Poto-Finixa



Diskurtsoaren ordena

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Epaitetza ikastaro sakona eskainiko dugu Bilbon

Bizkaiko Bertsozale Elkartetik epaitetza ikastaro bat eskainiko dugu urrian. Ikastaroa epaile izan gura dutenei zuzenduta egongo da, langintza horretan trebakuntza sakonagoa jasotzeko. Urriaren 19an eta 26an eskainiko dugu, Bilbon, 9:00etatik 13:30era. Interesa daukanak Bizkaiko Bertsozale Elkartera deitu edo [bizkaia@bertsozale.eus](mailto:bizkaia@bertsozale.eus) helbidera idatzi beharko du parte hartzeko.

Bertsolaritzaren historia puska bat irudiz, bertsoz, istorioz eta fikzioz. Ikuspuntu berria, liburu bakana, edizio berezia.



PUBLIZITATEA